

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazio nitxoak, bezero oso zehatz eta berezituak dituen enpresa da. Haurrekin zerikusia duten pertsonak izango dira gure xede-publikoa, hala nola, haurrak, hezitzaileak, familia... Honela laburbildu dezakegu gure xede-publikoko kolektiboaren ezaugarriak:

- Adin desberdinetako pertsonak, baina batez ere, 0-6 urte arteko haurrak eta 24-45 bitarteko helduak.
- Haurraren garapena garrantzitsua dela uste dute.
- Haurtzaroa bizitzako garrantzi handiko etapa dela dakitenak.

Balorezko proposamenak, banaka kanalak eta bezeroarekiko harremana hartzailearen neurritik egokituta egon behar dira. Gure kasuan, hezitzaileak eta familiak izango dira bezeroak. Gure enpresak, batik bat, haurrei bideratuta dago, baina hala ere, haurrekin zerikusia duten pertsonen zuzentzen da. Haurrak, jolasteko, haiek zaintzeko, ikasteko... aukerak egongo dira. Helduak berriz, aukera izango dute momentu zehatz batzuetan haiekin egoteko eta honetaz gain prestakuntza ezberdinetara joan ahalko dira.

Guk ematen dugun zerbitzua haurren garapenean oinarritzen da, horregatik beharrezkoa ikusten dugu haurrekin zerikusia duten pertsonekin lan egitea eta haiei esleitzea gure zerbitzuak. Horretaz gain, gure helburu nagusia haurraren garapen on bat bermatzea da, beraz, gure publikoa, batez ere, haurrak izango dira eta gure arreta eta zerbitzu gehienak haiei zuzenduta egongo dira.

Hala ere, ez gara helduetaz ahaztu behar. Haiek haurraren garapenean esku hartze handia dute, eta horregatik haurrak bezain garrantzitsuak dira guretzako. Haurraren garapen on bat eskuratzeko beharrezkoa da helduek ere haren garrantziaz kontziente izatea, eta haren beharrak eta nahiak zeintzuk diren jakitea, eta haiek nola asetzen diren jakitea. Guk hori guztia egiteko harrimintak elaraziko dizkiegu.

Baita ere, helduek eta haurrek elkarrekin denbora gehiago eta hobeto elkarrezagutzeko aukerak emango dizkiegu. Oso garrantzitsua ikusten dugu, haurrak bere

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

familiareki denbora pasatzea eta haiekin ekintza desberdinak burutzea, horrela haurren beharrak eta nahiak askoz ere asetuago egongo dira, eta baita, helduek haurren nahiak eta beharrak zeintzuk diren jakiteaz gain, haurrak ere, bere familiaren beharrak zeintzuk diren jakin ahal izango du.

Hasieratik esan bezala, gure enpresa haurren garapenean zentratzea erabaki dugu, nahiz eta zerbitzuak ez egon bakarrik haurrari bideraturik. Gure zerbitzu guztiek haurren garapenerako onuragarriak izan daitezken ekintzak dira, hala nola, ipuin kontaketa, hortu bat izatea, familiarekin ekintzak desberdinak jardutea, helduei haurren garapenean inguruko hitzaldiak eskaintzea...

Guretzako oso garrantzitsua eta beharrezkoa da horrelako zerbitzuak eskaintzea bai helduei eta haurrei jendartean, ikusi dezakegulako askotan ez dela haurren garapenean esku hartze on bat egoten. Familia askok ez dakite nola asetu haurren beharrak eta nahiak, eta ez diote behar den garrantzia ematen, jendarte hontan ez baitgara kontziente haurtzaroan gertatzen zaizkigun egoerak etorkizunean eragin handia izan ditzaketela.

Horregatik gure helburu nagusia kontzientziazio hori jendartean ematea da, eta haurren garapen on bat eta ongizatea bermatzea da. Horretarako beharrezkoa ikusten dugu jendarteko edonori eta gure zerbitzuetan interesatuta dauden denek aukera izate gure zerbitzuetaz disfrutatzeko eta haietaz ikasteko.